# 4.
# PGOREN ALORREAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK METATU DUEN ESPERIENTZIA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2005ean OPGren alorreko lehen esperientzia esplizitua jarri zuen martxan. Esperientzia horretan Bilboko auzo bat berroneratzeko proiektu batek Osasunean zuen Eragina Ebaluatu (OEE) zen[19]. Ordutik, hori aplikatzen trebezia eskuratzeaz gain eta hiriak berronatzeko proiektuetan[20] edo edateko uren fluorazioa mantentzeko komenigarritasunari buruz beste esperientzia batzuk gauzatzeaz gain[21], erkidegoetako politiken OEEtarako baheketa-tresna bat baliozkotu da[22] eta osasunerako eta hiri-garapen jasangarrirako gida bat egin da[23].

2012. urtean, garapen jasangarrira bideratuta zegoen sektoreen arteko plataforma baten bidez (EcoEuskadi, 2020), OPG ezartzen lan egin zen eta bertan OMSen eredua txertatu zen, euskal erkidegoko politiken jasangarritasunean sortzen den inpaktua ebaluatzeko gida batean[24].

Sektore sanitarioari dagokionez, OMSen ikuspegia eta arreta sanitarioaren alorreko programetan edo jarduketetan ekitatea txertatzen aurrerapenak egin dira. Hori da EAEko kolon eta ondesteko minbiziaren baheketa-programaren ekitatea berrikusteko zikloaren kasua[25]. Arreta sanitarioaren arloan ekitatearen aldeko beste ekimenetako bat, batetik, Lehen Mailako Arre-

---

19 Bacigalupe Amaia, Esnaola Santiago, Calderón Carlos, Zuazagoitia Jon, Aldasoro Elena. Health impact assessment of an urban regeneration project: opportunities and challenges in the context of a Southern European city. *J Epidemiol CommunityHealth* 2010;64:950-55

20 Serrano Elena, Larrañaga Maribel, Sanz Elvira, Baixas Maria Dolores, Basterretxea Mikel. Evaluación del impacto en salud de intervenciones de regeneración en la bahía de Pasaia: percepciones de la población afectada. *GacSanit* 2014

21 Delegación de Salud Pública de Bizkaia. *Memoria 2013.* http://bit.ly/2pRSJ6h [Acceso 15 05 2017]

22 Aldasoro Elena, Sanz Elvira, Bacigalupe Amaia, Esnaola Santiago, Calderón Carlos. Avanzando en la evaluación del impacto en la salud: análisis de las políticas públicas sectoriales del Gobierno Vasco como paso previo a la fase de cribado sistemático. *GacSanit* 2012;23(1):83-90

23 Udalsarea. Salud y desarrollo urbano sostenible. *Guía práctica para el análisis del efecto en la salud de las iniciativas locales de urbanismo.* Ihobe, 2014

24 Aldasoro Elena, Morteruel Maite. Introduction of Health and Equity Lens in a regional sectoral platform. Equity Action. Basque Country Case Study, 2013. http://bit.ly/2pFDan5 [Acceso 15 05 2017]

25 Bacigalupe Amaia, Aldasoro Elena, Nuin Beatriz, Zuazagoitia Jon, Portillo Isabel. Introducción de la perspectiva de equidad en el programa de cribado de cáncer colorectal. Jornada de actualización de cáncer colorectal. Bilbao, 9 de marzo de 2012. Hemen eskuragarri : http://bit.ly/13aJcvl [Atzitze-eguna 2015-12 17]

tako II erako mellitus diabetesaren prebentzio sekundario eta tertziarioan egin den ekitate-auditoria izan da[26], eta, bestetik, ekitatearen alderdia txertatzea, bere adierazleekin, 2014. urtean Osasun Sailak Osakidetzarekin Kontratu Sanitarioak egiteko Gidalerro berrien Kalitatearen II. Eranskinean.

26 Bacigalupe Amaia, Esnaola Santiago, Fraile Iñaki, Ibarra Josu, Urraca Javier, Sánchez Sheila, Millán Eduardo. *Desigualdades sociales en la atención a la diabetes tipo 2 en la Comarca Araba. Vitoria -Gasteiz:* Departamento de Salud, Servicio de Estudios e Investigación Sanitaria 2017.